

TURISTA ARDURATSUA AL ZARA? GALDETEGIAREN OINARRIAK

LEHENENGOA

Zozketa honetan parte hartuko dute: **“Turista arduratsua zara?”** testa osatzen eta emaitza gisa Turista arduratsuak direla lortzen duten adin nagusiko pertsona guztiek. Test hau Donostia Turismoaren webgunean eta sare sozialetan, Instagramen eta Facebooken, egongo da eskuragarri.

BIGARRENA

Zozketa bat egingo da lehenengo puntuan aipatutako baldintzak bete dituzten pertsona guztien artean. Sari bakoitzeko irabazle bat eta 5 ordezkoko aukeratuko dira. Irabazlea Donostia Turismoarekin harremanetan jartzen ez bada 72 orduko epean, 5 ordezkotako batekin jarriko dira harremanetan. Irabazleak eta ordezkoak ausaz hautatuko dira Easypromos plataformaren bidez. Plataforma horrek zozketaren emaitza gardena izango dela bermatzen du, eta, horren frogara gisa, baliozkotasun-ziurtagiria ematen du. Ziurtagiri horren emaitza aldaezina da zozketaren antolatzailearentzat, eta parte hartzen duen edozein erabiltzailek eska diezaioke antolatzaileari.

HIRUGARRENA

Parte hartzeko epea 2025eko uztailaren 7an hasiko da eta 2025eko irailaren 3an amaituko da, 23:59etan.

Irabazleen izenak 2025eko irailaren 4ean argitaratuko dira, Donostia Turismoaren webgunean, Instagramen, eta sare sozial honen posta bitartez eta posta elektronikoaren bidez, ere jarriko gara honekin harremanetan.

LAUGARRENA

Donostian eta inguruetan gozatzeko 6 sari:

1. Saria: Euskal Kultura. Sagardoa Routen eskutik

Euskal imanen kit-a eta Sagardotegira bisita eta bi lagunentzako bazkaria.

2. Saria: bisita donostiarra. San Sebastian Guides-en eskutik

Oinezko bisita gidatua bi pertsonentzat gure gida ofizialekin.

3. Saria: Gastronomía jasagarria. MUKAren eskutik

Bi lagunentzako bazkaria, xahuketarik gabeko sarean sartuta dagoen, MUKA jatetxean.

4. Saria: Bizikletak nagusi. Go Local-en eskutik

Donostiako auzoak ezagutzeko bisita gidatua bizikletan bi lagunentzat.

5. Saria: Donostiako dendak. Aitor Lasaren, Albokrena eta Kolorekaren eskutik

Euskal produktuen sorta: Kolorekako akuarela bat, Aitor Lasaren gazta bat, eta Alboka dendako txapela bat.

6. Saria: Gabon! Atoxa Rooms-en eskutik

Bi pertsonentzako gau bat gosaria barne.

- Esperientzia hauek urtebeteko indarraldia dute eta goi-denboralditik kanpo gozatu behar dira.
- Halaber, ezinbesteko baldintza izango da adin nagusikoa izatea.

BOSGARRENA

Donostia Turismoak berea du partaidetzatik inor salbuesteko eskubidea, baldin eta iritziko balio delako pertsona horrek iruzurrez edo laidoz diharduela beste parte-hartzaileen kontra.

SEIGARRENA

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

ZAZPIGARRENA

Lehiaketa hau Donostia Turismoak antolatu du, eta META PLATFORMS, INC. eta X CORP. erakundeek ez dute parte hartzen eta ez dute inolako erantzukizunik lehiaketarekiko.

ZORTZIGARRENA

Eskatutako datu pertsonalak (e-maila) irabazleekin harremanetan jartzeko bakarrik erabiliko dira. Oinarriak onartzeak parte-hartzaileek beren datu pertsonalak baldintza hauen arabera tratatzeko baimena ematen dutela esan nahiko du.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Tratamenduaren arduraduna	Donostiako Udala
Tratamenduaren helburua	Donostiako lurralde eremuan turismoaren garapena bultzatzen zuzenean edo zeharka laguntzen duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzeko, garatzeko eta indartzeko Donostiako Udalak antolatutako lehiaketetan, zozketetan eta beste edozein jardueratan interesdunaren parte-hartzea kudeatzea.
Tratamenduaren legitimazioa	DBAOko 6.1.a) artikulua: eragina jasandako pertsona baimentzea.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	Ez daude aurrez ikusita.
Interesdunen eskubideak	Eskubideetara sartzea, horiek zuzentzea eta ezabatzea, eta gainerako eskubide guztiak. Horiek Donostiako Udalaren aurrean erabili ahal izango dira: Ijentea, 1 – 20003 Donostia.

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatza hemen kontsulta dezakezu: <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/pribatutasun-oharrak-lehiaketak>

BEDERATZIGARRENA

Zozketa honetan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea esan nahi du.